



ARAUTEGIA

ARETO FUTBOLA 2026

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak, Euskadiko Futbol Federazioarekin lankidetzan, Euskadiko XLIII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK antolatuko ditu 2026ko maiatzaren 23an, Arrasateko Musakola Udal Kiroldegian.

Hona hemen arautegia:

1. JOKATZEKO MODUA

Hirukoan.

Mailak: Infantilak: 2012 eta 2013ean jaiotako neska-mutilak.

2. TALDEEN OSAERA

Taldeak honela osatuko dira: gehienez 15 eta gutxienez 7 jokalaria, ordezkari bat eta entrenatzailea.

Talde batek gutxienez 8 jokalaria aurkezten ez baldin baditu, partida berdin jokatuko da. Parte hartzeko baldintzak betetzen dituen taldeko ordezkariak, instalazioan dagoen Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzako ordezkariak emango dion fitxa bete beharko du. Adostasuna emanaz gero eta partida baliozkotzat ematen bada, horren emaitza behin betikoa izango da. Adostasuna lortzen ez bada, eta araua bete ez duen taldea irabazlea izan bada, azken emaitza 2-0ekoa izango da, arauak adierazten duen parte-hartzaileen kopurua aurkeztu duen taldearen alde. Partidaren emaitza araua bete duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Partida guztietan taldeko kideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du partidan parte hartu.



Kirolariren bat Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzako ordezkariak duen parte-hartzaileen zerrendan ez badago, kirolariak parte hartu ahal izango du, taldeko arduradunari aldez aurretik abisatuta. Ahalik eta lasterren, Jarduera Fisiko eta Kiroleko Zuzendaritzatik, zerrendan agertzen ez den pertsonaren taldeko kide dela egiaztatuko du. Zerrendan agertzen ez den pertsona taldeko kidea ez bada, jokalarien zerrenda okertzat emango da, eta arau-haustea egin duen taldeak partida galduko du, baldin eta emaitza irabazia suertatzen bada, 2-0 emaitzarekin. Partidaren emaitza arau-haustea egin ez duen taldearen aldekoa bada, hura errespetatuko da.

Parte hartzen duten taldeen osaera Foru Aldundietan inskribatuta dagoena izango da. Ez da onartuko sailkatutako erakunde bereko lizentzia eduki arren, Euskadiko Eskola-Kirol Jokoetarako sailkatutako taldekoak ez diren jokalarien parte hartzea. Lege hori mantendu egin beharko da, nahiz eta egoera hau beste lurraldetan jokatu diren lehiaketetan baimendua izan.

3. JOKO JANTZIAK

Talde guztiek kolore ezberdineko bi ekipamendu izan behar dituzte, bi taldek kolore berarekin jokatzeko saihesteko. Kasu honetan, txapelketaren webgune ofizialean bisitari talde bezala azaltzen denak, bigarren janzkera erabili beharko du.

4. PARTIDEN IRAUPENA

Triangeluar bakoitzaren iraupenak 20 minutuko denbora efektibo/kronometratua izango du. Aldi bakoitza 10 minutuko bi zatitan banatuko da, 2 minutuko tartearekin, eta beharrezkoak diren aldaketak egiteko balioko dute.

Jokalari bakoitzak txapelketa guztitik gutxienez zati bat jokatu beharko du (hau da, 10 minutu), salbuespenak honako hauek izan daitezkeelarik:



- Lesionatutako jokalaria. (Asistentzia jaso ezker edota bi minutu baino gehiagoko geldialdia gertatzen ez bada, aldaketa egiteko beharrik ez da egongo).
- Kaleratutako jokalaria.

Talde bakoitzak minuto bateko (1) hutsarte bat eskatzeko aukera du zati bakoitzean.

5. BERDINKETA HAUSTEAK

Azken sailkapenean berdinketak saihesteko, 5 penaltiko txanda bat jaurtiko da (edo talderen batek penalti gehiago sartu arte) partida guztiak amaitzean. Partida arauzko baldintzetan amaitu duten jokalariek jaurtiko dituzte penalti horiek.

• AZKEN SAILKAPENEAN BERDINKETA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

→ BERDINKETA BIKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

1. Talde irabazleak beraien artean jokaturiko partidaren lortutako emaitza.
2. Talde irabazleak beraien artean jaurtitako penaltien emaitzak
3. Partida denboran zehar sarturiko golen aldea.
4. Partida guzietan sarturiko penaltien aldea.
5. Partidan lortutako aldeko golak guztira
6. Aldeko penaltiak guztira
7. Desberdintze partida

→ BERDINKETA HIRUKOITZA EGONEZ GERO ERABILIKO DIREN IRIZPIDEAK

1. Berdindutako taldeen arteko golen aldea
2. Berdindutako taldeen arteko penaltien aldea
3. Berdindutako taldeen artean gol gehien sartu dituenak
4. Berdindutako taldeen artean penalti gehien sartu dituenak
5. Partida denboran zehar sarturiko gol guzietan aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz



6. Penalti guzien aldea, kanporaturiko taldea kontuan edukiz
7. Kanporaturiko taldea kontuan edukiaz gol gehien sartu dituen
8. Kanporaturiko taldea kontuan edukiz penalti gehien sartu dituen
9. Zozketa

6. BALOIA

Partidetan erabiliko diren baloiek joko-arauek ezartzen dituzten baldintzak, pisua, neurriak eta presioa izan beharko dituzte, eta jokorako hiru prest egongo dira, epaileek behar bezala kontrolatuta eta Antolakuntzak emanda, ERREA HURAN HYBRID aurtengo denboraldian.

7. JOKO ARAUAK

Espainiako Futboleko Errege Federazioko Areto Futboleko Batzorde Nazionalaren joko-arauak aplikatuko dira.

• **SAKEAK**

• ALBOKO SAKEA

Baloia alboko marretatik ateratzen den bakoitzean, parte-hartzaile batek jarriko du jokoan, baloia marraren gainean, mugitu gabe, eta oinarekin joz, argi mugituz. Beste jokalaria baloitik 5 metrora egongo da. Alboko sakeko gol zuzenak ez du balio.

• KORNERRA :

Talde erasotzaileko kideetako batek egin behar du kornerra. Baloia geldirik dagoen izkinako koadrantean jarri behar da, oinaz jo behar da eta argi mugitu behar da. Aurkako jokalaria baloitik 5 metrora egongo da. Baliozkoa da kornerrak jaurtiketako gol zuzena.



- **ATEKO SAKEA:**

Defentsa taldeko atezainak eskuekin baloia area barrutik jaurti edo erortzen utziko du.

- Baloia jaurtitzen edo askatzen den unean egongo da jokoan, eta argi mugituko da; baloiak ezin izango du zelai erdiko lerroa pasatu lehenago lurra ukitu gabe edo jaurtiketa egiten duen atezainaren joko-azaleraren erdian dagoen jokalariren bat ukitu gabe.

- Aurkariak areatik kanpo egon beharko dute baloia jokoan egon arte.

- Faltak eta okerrak: "... atezainak baloia eskuarekin jaurtitzen badu, baloia zelai erdiko lerrotik pasatuz, lehenago lurra ukitu gabe edo jaurtiketa egiten duen atezainaren joko azaleraren erdian kokatuta edozein jokalaria lehenago ukitu gabe...", jaurtiketa libre ez zuzen batekin zigortuko da, baloia zelai erdiko lerrotik pasa zen lekutik hurbilen dagoen puntutik hasita.

Gola ez da baliozkoa izango, zuzenean eskuarekin lortzen badu ateko saketik.

- **JAURTIKETAK**

Jokalariek, atezainak barne, 4" segundo dituzte edozein sake edo jaurtiketa egiteko, erdiko sakea edo penaltia izan ezik.

- **GOLA**

Gola ez da balekoa izango

- Tantoaren jokalaria lehenago nahi gabe eskuarekin/besoarekin pilota ukitu badu.

Kontrako taldearen aldeko jaurtiketa libre ez zuzena adierazko da.

- Alboko sake batetik zuzenean lortutakoa. Aurkariarentzat ateko sakea adieraziko da.

Korner jaurtiketa batetik zuzenean lortutakoa izango da baliozko gola.

- **ESKUAK**



Baloia eskuarekin edo besoarekin ukitzea ez da arau-haustea. Hauek falta dira:

a) Borondatezkoak

Baloia eskuarekin edo besoarekin nahita ukitzea, adibidez gorputzaren atal horiek baloierantz mugituz.

b) Antinaturalak

Baloia eskuarekin edo besoarekin ukitzea, jarrera antinaturalean jartzen direnean eta gorputzak leku gehiago hartzea lortzen dutenak, argi eta garbi askatuta eta gorputzetik aldentuta edo sorbalda gainetik jarrita.

Falta ez diren eskuak:

c) Ustekabekoak (nahi gabekoak)

Ez da arau-haustea baloia eskuarekin edo besoarekin nahi gabe ukitzea, baldin eta aurkariaren atean gola sartzen ez badu. Beraz, jokoak aurrera jarraitu behar du:

- Eskua jarrera naturalean edo
- itsatsita / gorputzetik hurbil.

• **JAURTIKETA LIBRE EZ ZUZENA**

Atezainak honako arau-hauste hauetako bat egiten badu, jaurtiketa libre ez zuzena adieraziko da:

- bere jokalekuaren erdian, lau segundo baino gehiagoz, baloia eskuekin edo oinekin kontrolatzen badu;
- jokalekuko edozein tokitan baloia jokatu eta eraman ondoren, bere erdian baloia berriz ukituko balu, bere taldekide baten pasearen ondoren, baloia jokatu edo ukitu gabe.
- baloia eskuekin edo besoekin ukitzen badudu bere area barruan, bere taldeko jokalaria batek oinarekin laga ondoren (baita alboko sake batetik ere);



Arau-haustea egiten den lekutik aterako da falta, eta area barrutik egiten bada, jaurtiketa libre ez zuzena marra gainetik botako da.

- **PILATUTAKO FALTAK**

Jaurtiketa libre zuzenarekin zigortzen direnak dira

Gainera, aulkiko kideek protesta egiteagatik jasotzen dituzten txartelek (horiek edo gorriak) falta bat pilatuko diote taldeari.

Partidako aktan bi taldeek denboraldi bakoitzean pilatutako faltak erregistratuko dira.

Talde batek denbora berean pilatutako sei falta edo gehiago egiten dituenean, 10 metrotik gorako zuzeneko librea edo oztoporik gabeko jaurtiketa bat emango da. Seigarren falta edo metatutako hurrengo falta hauetako arau-hauslearen areren barruan egiten bada, penalti batekin zigortuko da.

Jaurtitzailleak markatzen saiatu beharko du. Defentsa taldeko jokalariek ezin izango dute hesi bat osatu jaurtiketa libre zuzen hauek defendatzeko.

8. DIZIPLINA NEURRIAK

Arbitroek diziplinazko neurriak hartu ahal izango dituzte partidetakoko parte-hartzaileekin, egoki iritziz gero: txartel horia edo gorria.

Jokalari berarentzako bi txartel horik edo zuzeneko txartel gorriak, talde horrek bi minutoz jokalaria kopuru gutxiago izatea dakartza.

Talde aurkariak gola sartzen badu, une horretan beste jokalaria bat berreskuratuko du, ezingo da izan jokalaria kanporatua, aurretik zelaia utzi behar izan duelako. kanporatua.

9. ARBITRAJEA

Bi arbitrok zuzenduko dituzte partidak, eta bandan egongo den arbitro batek jokatutako denbora kronometratu eta partidako gorabeherak idatziko ditu. Izendapena Areto Futboleko Arbitroen Euskal Batzorde Teknikoari dagokio.



10. SARIAK

Ondorengo sariak emango dira: lehen, bigarren eta hirugarren sailkatutako taldeei garaikur bana emango zaie.

11. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharririk sortu ezkeronahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

12. AZKEN OHARRA

Arautegi honetan azaltzen ez diren kontuak argitzeko, ondorengo testuak hartuko dira kontuan:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.
- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketaren diziplina-araubideari buruzkoa
- d) AGINDUA, 2026ko urtarrilaren 27koa, Lehenengo Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2026ko otsailaren 2koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariarena, 2026ko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLIII edizioeko lehiaketako epaile bakarria izendatzen duena.
- f) Futboleko Euskadiko Federazioaren araudiak dioena.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan ezkeron, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.